

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

Gazte Sortzaileak beken deialdia

2019ko otsailaren 8an Euskara Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak Gazte Sortzaileak beken deialdia onartu du. Beken helburua da 16 eta 35 urte bitarteko Gasteizko edo Arabako lurralde historikoko gazteei laguntzea sortu nahi dituzten ekitaldi artistikoak gauzatzeko. Ekitaldi horiek euskaraz izango dira eta ahozkotasanari estu-estu loturik egongo dira: antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoa, baita diziplinen arteko hibridazioa ere. Deialdiaren oinarriak Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean eskuratu daitezke: v-g.eus/gaztesortzaileak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 1ean

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO